



Nola bizi urtean 400 euroekin

Gaur egungo eredu ekonomikoak aberatsen eta pobreen arteko diferentzia areagotzen duela esaten badugu ez da inor harrituko. Behar bada, hori da harrigarriena, alegia, inor ez dela harritzen. Normalizat ikusten dugu. Baina zer gertatuko litzateke urtean 400 euroekin familia aurrera atera behar izango bagenu? Ariketa honetan hausnarketa hori egitea proposatzen dizuegu.



HELBURUAK

- Egungo eredu ekonomikoak dakarren ondasunen banaketa injustua ezagutzea.
- Ikasleen artean elkartzasunez jokatzeko gogoia piztea.

HARREMANA DUTEN GAIAK

- Gizarte Zientziak
- Hiritartasunerako Hezkuntza

JARDUERAREN GARAPENA

Lehenengo urratsa

Koadroko testua irakurri. "Freedom from Hunger" elkarteak 1965.eko uztaillean argitaratu zuen txostena da.

Demagun zure familiaren urteko irabaziaz 30.000 eurora iristen direla eta hiritik kanpo dagoen etxe batean bizi zarela. Urtean 400 euro baino ez dituzten familien egoera ezagutzeko, zenbait aldaketa egin behar dituzu zure etxean eta zure bizimoduan:

- 1• Etxeko altzariak kendu behar dituzu. Manta zahar batzuk, sukaldarako mahai bat eta aulki bakarra gorde ditzakezu soilik.
- 2• Arropa guztia kendu. Familia-buruarentzat oinetako pare bat eta alkandora bat gorde ditzakezu soilik.
- 3• Despenssa eta frigorifikoa hustu; irin pixka bat, azukre eta gatz pixka bat, gaueko afarirako patata gutxi batzuk eta platerkada bat baba lehor gorde ditzakezu soilik.
- 4• Bainu-gela eraitsi, ura moztu eta kable elektrikoak kendu.
- 5• Etxea eraitsi eta familia txabola batera eraman.
- 6• Auzoko beste etxeak kendu eta zure babeslekua txabolaz betetako auzo baten erdian jarri.
- 7• Egunkari eta aldizkarietako harpidetzak bertan behera utzi. Ez da galera handia izango, familiako inork ez baitaki ez irakurtzen ezta idazten ere.
- 8• Ospitalerik hurbilena 18 kilometrora urrutiratu.
- 9• Taloiak, burtsako akzioak, erretiro-planak eta aseguru-polizak bota eta hamar euro (diru guztia) utzi familia osoarentzat.
- 10• Bizi-itxaropenari 25-30 urte kendu.

Bigarren urratsa

Irudikatu al dituzu aldaketa guztiak? Horrela egin ondoren, galdera hauen inguruko hausnarketa hasi:

- 1• Ba al zenekien Giza Eskubideen Aldarrikapenaren 25. artikuluan esaldi hau jasotzen dela? "**Pertsona guztiok dugu bizi maila egoki baten eskubidea**".
- 2• Sentitzen al duzu baldintza horietan bizi diren pertsonen laguntzeko premia?

3• Deskribatu nolakoa izango litzatekeen zure bizitzako egun bat baldintza horietan.

- 3.1• Zer jango zenuke?
- 3.2• Nola lortuko zenuke janaria?
- 3.3• Eskolara joateko aukerarik izango al zenuke?
- 3.4• Denbora librean zer egingo zenuke?